

Nerbioi-Ibaizabal eskualdean Eskola Agenda 21a lantzen ari diren Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxeetan (Galdakaoko Urreta ikastetxean eta Eguzkibegi ikastolan, eta Ugaoko eta Urduñako ikastetxeetan) RosiErosi antzezlanaren izan da ikusgai Martxoan. Antzezlanaren sortzaile eta arduraduna den Patricia Francorekin elkarrizketa egiteko aukera izan dugu eta hauek izan dira bere hitzak:

**Q:** Zenbat denbora daramazu antzezlan munduan?

**P.F.:** Antzezlan munduan 1992an hasi nintzen.

**Q:** Eta Zelatan hasi zinen ba mundu honetan? Zerk bultzatu zintuen?

**P.F.:** Hasera baten ez nuen motibazio berezirik izan, ez zen gauza konkritu bat izan antzezlan mundura bultzatu ninduen. Txotxongiloen ikastaro bat egin nuen eta pixkanaka antzezlan munduan murgiltzen hasi nintzen gauza batetik bestera pasatuz eta beti gauza berriak ikasiz.

**Q:** Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko hainbat ikastetxetan egin duzuen antzezlanera hurbilduz, zein mezu zabaldu nahi duzue "RosiErosi" lanaren bitartez?

**P.F.:** Sarritan guraso askok duten jarrerarekiko arreta deitu nahi dugu. Hau da, haurrei eskatzen duten dena emate horrekiko dugun iritzi kritikoa azaldu nahi dugu. RosiErosi lana Grimm anaien Hansel eta Gretelen istorioan oinarritua dago, baina kasu hartan gurasoek haurrak elikatzeko janaririk ez zutelako utzi bazituzten, kasu honetan Manolo eta Mari Carmenek Rosi uzten dute bere kontsumismo maila jasanezina delako etxeko ekonomiarako.

**Q:** Ze beste antzezlan egiten dituzue? Zein gai jorratzen dituzue?

**P.F.:** Konpainiaren bizitza osoan gai desberdin asko jorratu izan ditugu, baina gaur egun kontsumismoaren inguruko RosiErosi lanaz gain, beste bi gai lantzen ari gara. Batetik, ingurumenaren inguruko "Den Dena niretzat" antzezlanarekin ari gara, naturarekiko dugun jarrera berekoia salatuz eta bestetik, immigrazioaren inguruko "Murren bidai" ere badugu taula gainean. Bi lanak 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude.

**Q:** Proiektu berririk ba al duzue eskuartean?

**P.F.:** Bai, helduentzat zuzendua dagoen "No es fácil" lanarekin dihardugu, bertan emakumeen gaia jorratzen da. Lan aktoral da eta proiektzioekin osatzen dugu. Honez gain, udazkenean kontsumismoaren inguruko lan berri bat taularatuko dugu.

